

KATAKONBA BERRIA

ARTHUR CONAN DOYLE

Moldapena eta lan orriak:

OSKAR BILBAO-GOYOAGA

DESCLÉE DE BROUWER

KATAKONBA BERRIA

*HOTELEKO GELA EROSOA
ETA ANTZINAKO ERROMA*

—Aizul Burger: Zuk nigan konfidantza edukitzea nahi nuke –esan zuen Kennedyk.

Bi ikerlari ospetsuak Kennedyren gela erosoan zeuden jesarrita. Gelaren leihoak **Corsora** begira zeuden. Biek Erroma zaharreko **hondakinak** aztertzea zuten lanbide. Ikergai honetan espezialistak ziren.

Gau hotza zen, eta biok **labetxo** italiar erdi-hondatura hurbildu zituzten haien besaulkiak. Labetxo kaskar hark berotasuna eman beharrean, **itolarrria** edo, eragiten zien inguruan jartzen zirenei.

Kanpoan, neguaren zeruko izar distiratsuen azpian, Erroma modemoa zegoen: **kale-argi**



Corso: Erromako biderik nagusia. Jauregi eta elizaz beterik dago. Bertan zaldi-lasterketak egiten ziren XIX. menderarte.

hondakin: Zerbait erabili edota apurtu ondoren gelditzen diren puska eta zatiak. *Gazteluaren hormen hondakinak. Janari-hondakinak. Belar-hondakinak.*

labetxo: berogailu txikia. “Estufa”.

itolarrria: itobeharra. “Ahogo, agobio”.

kale-argi: farola.

elektrikoen ilada bikoitz bat, distiratsuki argiztatutako kaleak, azkar iragaiten ziren ibilgailuak eta jende pilo ikarragarria espaloietan zehar.

*ANTZINAKO FRISO, BUSTO,
INSKRIPZIO ETA BESTE*

Baina barruan, ingeles arkeologo aberats eta gaztearen gela bikain haren barnean, antzinako Erroma zaharra besterik ez zen ikusten: Denboraren joanak **pitzatu** eta **erasandako** frisoak hormetan zintzilika; eta, senadore eta gudarien antzinako bustoetan, beraien borrokalaria-aurpegi zakar eta **ankerrak**.

Erdiko mahaian, ordea, inskripzio, harri-puska eta apaingarri artean, Kennedyk eraikitako maketa ospetsua altxatzen zen. Maketa horretan, **Caracallako Termak** berreraiki zituen eta obra honek nahikoa ikusmin eta mirespen piztu zituen Berlinen erakutsi zutenean. Sapatik behera zintzilika, anfora batzuk zeuden, eta lurrean zegoen Turkiako alfonbraren gainean, denetariko bitxitasunak **barreiaturik**. Eta **gau-**

6



pitzatu: “agrietar”.

erasan: jasan arazi. Jasan-erasan Ikasi-irakatsi bezalakoak dira. “Gastar, derrengar”.

zakar: gogor. “Rudo, duro”. Gizon zakarra.

anker: krudela.

Caracallako termak: Erroma inperialeko bainietxe publikoak. III. mendean eraikiak.

barreiatu: sakabanatu. “Esparcer”.

gauzaki: objetua.

zaki hauen guztien artean, bakartxo bat ere ez zen faltsua. Aitzitik, den-denak ziren egiazkoak, zalantza izpirik-gabe; beraien edertasun eta bakartasun gaindiezinak, ahaztu barik, noski.

*KENNEDY, ARKEOLOGO GAZTE, EDER,
ABERATS ... ETA ANDREZALEA*

Kennedyk, ozta-ozta hogeita hamar urte bete zituen arren, ikerkuntzaren alor berezi honetan, erabateko izen onaz gozatzen zuen Europa mailan. Honez gain, Kennedy dirutza handi baten jabea zen. Jakina, arkeologo batentzat, diruz estu ibiltzea hil ala biziko ostopoa gerta daiteke. Eta, bestela, buruargia eta langilea izateaz gain, aberatsa izateak, erraztasun ikaragarriak ekarri ahal dizkio, izen onaren bila abiatzen denean.

Zorigaitzez, sarritan, atseginkeria, eta nahikeriak apartatu izan zuten Kennedy bere ikerlanetatik; baina bere argitasuna **oldarkorra** zen oso, eta ahalegin luze eta trinkoak egiteko gai ere bai. Ahalegin luze eta trinko hauen ostean, sarritan, gorputzeko atseginaldi bizi-zoroak etorri ohi ziren. Aurpegi ederra, bekoki garai eta zuria, sudur zorrotza eta aho biguin eta sentzuala zuen. Indarra eta ahultasunaren oreka zegoen beregan.



oldarkor: “agresivo, impulsivo”.

*BURGER, ARKEOLOGO GAZTE, POBRE,
GOIBEL... ETA GIZARTETASUNIK GABEA*

Bere laguna, Julius Burger, oso bestelakoa zen; bere zainetan odol nahasketa bitxia zerman: aita alemaniarra zen eta ama, italiarra. Beraz, Iparrari dagokion gogortasunarekin batera, Hegoari dagokion maitagarritasuna transmititu zioten.

Begi urdin alemaniarrek bere begitartea argizatzen zuten, eta ile **sapatsu** eta horiek bekoki karratu eta sendoa antolatzen zioten. Matraila bortitz eta gogorraren bizarrak erabat moztuta zeuzkan, eta, honexek, Kennedyri, Erromako antzinako bustoekin zeukan antz handiaz komentatioren bat egiteko aukera ematen zion askotan. Gogortasun alemaniarraren azpian, beti-beti, **sotiltasun** itallarraren kutsu bat somatzen zen. Alabaina, Burgerren irribarre eta begirada guztiz zintzoak ziren.

Hortaz, denek konprenitzen zuten sotiltasun hura ez zela berezkoa, bere jatorriaren ezaugarri bat baino; sotiltasun kutsu hura ez zetorren bat bere benetako izakerarekin.

Izen ona eta ospeari dagokionez, Burger, bere lagun ingelesaren parean zegoen; hala ere, bere bizitza eta lana askoz zailagoak izan ziren.



sapatsu: tximitsu. **Sapak:** “greñas”.

sotiltasun: “situleza”.